



EBAZPENA, 2020ko otsailaren 13koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2019-2020ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaeren Ebazpena egiten duena.

2019ko uztailaren 2ko aginduaren bidez (2019ko uztailaren 11eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2019-2020ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

1. eta 2. behin betiko ebazpena 2019ko abenduaren 18an eta 2020ko urtarrilaren 16an argitara eman eta jakinarazi ondoren, beka orokorrari buruzko 3. ebazpena egiten da. Ebazpen honetan sartu ez ziren eskaerak edo ebatziak izan diren aurkeztutako hainbat alegazio sartzen dira.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT:

Lehen artikulua.- Deialdi horren 3. ebazpenaren berri ematea 2019-2020ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean eskaerak, beka emateko edo ez emateko ebazpenarekin batera, zerrendatzen dira. Ebazpenak zehatz kontsultatzeko, eskatzaileek beren espedienteak Eusko Jaurlaritzaren beka-aplikazioan kontsultatu beharko dituzte.

Bigarren artikulua.- Hilabete bateko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek prozedura-ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezteko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 13a.

Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

MIREN ARTARAZ MIÑÓN



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1Z2Y-QHGX bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1Z2Y-QHGX en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>